



ARAUDIA DURANGOKO AZOKA 2024

PARTE HARTZEKO BALDINTZAK ETA IRIZPIDEAK
GEREDIAGA ELKARTEA



AURKIBIDEA

SARRERA	3
XEDAPEN OROKORRAK	3
1. artikulua – Araudiaren xedea	3
2. artikulua – Titulartasuna eta antolakuntza	3
3. artikulua – Antolakuntzaren eskumenak	3
PARTE HARTZEKO BALDINTZAK	4
4. artikulua – Erakusmahaia alokatzen dutenen baldintzak	4
4.1 Norbere erakusmahaia	4
4.2 Auto-ekoizleen erakusmahai partekatua	4
4.3 Durangaldeko argitalpenak	4
LEKUEN ESLEIPENERAKO JARDUNBIDEA	5
5. artikulua – Parte hartzeko eskaria	5
5.1 Eskaria nola egin	5
5.2. Aurkezteko epea	5
5.3. Parte hartzeko kuota	5
5.4. Salbuespenak	5
6. artikulua - Onartutako salgarriak	5
6.1. Liburuak eta aldizkariak	6
6.2. Musika	6
6.3. Multimedia	6
6.4. Besteak	6
7. artikulua - Eskarien ebazpenak	7
PARTEHARTZAILEEN ESKUBIDEAK	7
8. artikulua - Eskubideak	7
8.1. Produktuen salmenta	8
8.2. Sustapena	8
8.3. Zerbitzu orokorrak	8
PARTAIDEEN BETEBEHARRAK eta ERANTZUKIZUNAK	9
9. artikulua – Partaideen betebeharrak	9
10. artikulua - Erantzukizunak	9
DEBEKUAK, ARAU-HAUSTEAK ETA ZIGORRAK	10
11. artikulua - Debekuak	10
12. artikulua - Arau-haustek	10



13.artikulua - Zigorak	11
EZINBESTEZ EGINDAKO ALDAKETAK EDO EZEZTATZEAK	11
JURISDIKZIOA	11



DURANGOKO AZOKA - ARAUDIA

SARRERA

Gerediaga Elkartea 1965. urtean sortu zen, Durangaldeko eskualdearen kultura eta nortasuna finkatzeko, sustatzeko eta zaintzeko helburuarekin.

Helburu hori aintzat hartuta antolatutako ekimenen artean, 1965ean, Gerediaga Elkartek Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azoka antolatu zuen lehen aldiz, euskal gaiak lantzen zituzten liburu eta disko sektoreen topaleku izateko eta gizarteak euskara eta euskal kultura bizitzeko aukera izan zezan.

Urteetan bere helburu nagusiari eutsi dio: euskaraz egindako edo Euskal Herriari lotutako gaiak dituzten ekoizpen lanak erakusteko eta saltzeko leku izatea.

Azken urte hauetan, Durangoko Azokak ohiko salmenta guneaz (Azoka) gain, euskal kulturaren hedapenerako eta sustapenerako beste gune batzuk ere garatu ditu (guneak).

XEDAPEN OROKORRAK

1. ARTIKULUA – ARAUDIAREN XEDEA

Durangoko Azoka Durangon (Bizkaia) urtero egiten den azoka da, euskarazko edo euskal gaiak jorratzen dituzten liburu, aldizkari, disko eta multimedia euskarrietan argitaratutako lanen erakusketa eta salmenta sustatzeko.

Honako araudi honek bertan parte-hartzea zehazteko helburua dauka.

2. ARTIKULUA – TITULARTASUNA ETA ANTOLAKUNTZA

2.1 Durangoko Azokaren titulartasuna Gerediaga Elkartearena da. Elkartearen Zuzendaritza Batzordeari dagokio kudeaketarako ordezkaritza nagusia eta, haren izenean, elkarteko presidenteari.

2.2 Gune ezberdinen antolakuntzarako, Gerediaga Elkartek kultur eragile ezberdinekin elkarlanean dihardu.

3. ARTIKULUA – ANTOLAKUNTZAREN ESKUMENAK

Gerediaga Elkarteari, Durangoko Azokaren antolatzaile modura, honako eskumen hauek dagozkio:

- Durangoko Azokaren antolakuntzarako eta garapenerako eta araudi honen aplikaziorako beharrezkoak diren neurriak hartzea.
- Azokan parte hartzeko eskarien eta espazioen esleipenari buruz ebaztea.
- Araudi honetan jasota dauden zigorrak ezartzea.
- Araudi honetan jasotakoetatik sortutako beste edozein gai ebaztea.

Gerediaga Elkartek beretzat hartzen du araudi honen artikuluen interpretazioaren gaineko azken erabakia, baita artikulua hauetan beren beregi aurreikusitako gabekoena ere.



PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

4. ARTIKULUA – ERAKUSMAHAIA ALOKATZEN DUTENEN BALDINTZAK

Gerediaga Elkartea eskubidea izango du Azokan parte hartzeko eskariak onartzeko edo baztertzeko: aurreko urteetako edizioetan araudia bete ez dutelako, dagokion parte-hartzea ordaindu ez duelako, Azokarekiko beste zorren bat dutelako edo beste edozein arrazoi dela medio.

Durangoko Azokan parte hartzeko aukera ezberdinak aurreikusita daude:

1. Norbere erakusmahaia.
2. Autoekoizleen erakusmahai partekatua.
3. Durangaldeko argitalpenen erakusmahaia.

2024ko Durangoko Azokaren edizioan azokaren ikerketa soziologikoa egingo du Gerediaga Elkartea. Azokan parte hartzeko eskaera egiten duten eragile, autoekoizle eta egileek eskaera egitearekin batera konpromisoa hartzen dute antolatzaileek bidaliko dieten galdetegia betetzeko.

4.1 NORBERE ERAKUSMAHAIA.

Durangoko Azokan erakusmahaia eskatu ahal izango dute:

- a) Araudi honen 6. artikuluan adierazten dena betetzen duten produktuak saldu eta erakusteko gaitasuna duten enpresak (argitaletxeak, diskoetxeak, ekoizpen enpresak, banatzaileak), norbanako fisiko eta juridikoak, elkarteak edo erakunde ofizialen edo beste erakunde batzuen argitalpen zerbitzuak (aurrerantzean Partaideak).
- b) Aurreko puntuan aipatutako eragileen ordezkariak, ordezkaturakoen baimena izanda.
- c) Gerediaga Elkartearen gonbidapena jasotzen duen beste edozein enpresa, elkarte, erakunde publiko, babesle edo artikulua honetan aurreikusi gabeko edozein.

4.2 AUTO-EKOIZLEEN ERAKUSMAHAI PARTEKATUA.

Partekatutako espazio berezia alokatu ahal izango dute euren katalogoan auto-ekoiztutako produktu bi edo gutxiago dauzkaten sortzaileek edo elkarteek, baldintza hauek beteta:

- Araudi honen 6. artikuluan adierazten dena betetzen duten produktu bi edo gutxiago edukitzea katalogoan. Eskakizun honek ez ditu baztertzeko euren sorkuntza-lanaren parte bat enprekin argitaratuta duten sortzaileak, baina auto-ekoizpenari dagokion erakusmahai gehienez produktu bi izango ditu.
- Erakusmahaia partekatua izango da, autogestionatua, eta parte-hartzaileek kudeatua.

4.3 DURANGALDEKO ARGITALPENAK

Erakusmahai partekatu honetan, helbide fiskala Durangaldeko udalerriren batean duten sortzaileek, enpresek (argitaletxeak, disko etxeak, ekoizpen enpresek, banatzaileak), elkarteek edo erakunde ofizialen edo beste erakunde batzuen argitalpen zerbitzuek parte hartu ahal izango dute, ondoren adierazten den eskakizun bat betetzen badute:



- Aurkeztutako produktuak Durangaldeko gaiet buruzkoak izatea, hizkuntza edozein dela.
- Sorkuntza-lanak euskarazkoak edo elebidunak izatea (hizkuntzetako bat euskara izanda).

Erakusmahaiaren Gerediaga Elkarteko langileek kudeatuko dute eta salmentarako produktuak Gerediaga Elkartean esandako leku eta epean aurkeztu beharko dira. Saldutakoan dirua osorik emango zaio partaideari.

LEKUEN ESLEIPENERAKO JARDUNBIDEA.

5. ARTIKULUA – PARTE HARTZEKO ESKARIA

Durangoko Azokan parte hartzeko eskaria aurkezteak, araudi hau eta Gerediaga Elkartean har ditzakeen xedapenak eta akordioak onartzea dakar.

Eskaria aurkezteak aurrez aurre parte hartzea dakar, gutxienez, 2024an argitaratutako produktuekin.

5.1 ESKARIA NOLA EGIN.

4. artikuluan adierazten diren baldintzak betetzen dituzten eta Azokan parte hartzeko interesa duten partaideek, Durangoko Azokaren www.durangokoazoka.eus webgunean erregistratu eta galdetegiaren bitartez eskatu beharko dute parte hartzea.

5.2. AURKEZTEKO EPEA.

Eskaria www.durangokoazoka.eus webgunean iragarritako epearen barruan aurkeztu behar da, aipatutako webgunearen bidez.

Epez kanpo aurkeztutako eskariak % 15eko gainordaina izango dute parte hartzeko kuotan. Dena den, Gerediaga Elkartean esku egongo da arakusmahaiaren esleipena egin edo ez.

5.3. PARTE HARTZEKO KUOTA.

Eskaria eta ondorengo esleipena aurrera eraman ahal izateko beharrezkoa izango da aurretik partaidetza-kuota ordaintzea. Partaidetza-kuota hori Gerediaga Elkartean finkatuko du urtero.

Kuota antolakuntzak ezarritako eran ordaintzen ez bada, partaideak Azokan parte hartzeari uko egiten diola esan nahi du.

5.4. SALBUESPENAK.

Durangoko Azokaren beren beregiko gonbidapena jaso dutenek ez dute bete beharko artikulua honetan adierazten dena.

6. ARTIKULUA - ONARTUTAKO SALGARRIAK.

Durangoko Azoka xede zehatz batekin eta mugatutako espazio batean egiten da. Hori dela eta, Azokan erakusmahaiaren zein espazio partekatuen (auto-ekoizpena, Durangaldeko argitalpenak,...) esleipena,



aurkeztutako lan-motan oinarritutako irizpideetara egokituko da. Lehentasuna euskara hutsezko argitalpen eta materialek izango dute. Ondorioz, eskariak, berez, ez du ematen eraskusmahai edo espazio bat esleitzeko eskubiderik.

Erakusmahai edo espazio partekatuaren esleipena jasotzeko eskubidea izango dute ondoren aipatzen diren baldintzak betetzen dituzten salgarriak erakusten edo saltzen dituzten partaideek:

6.1. LIBURUAK ETA ALDIZKARIAK.

- Zabalkunde lanak (historia, politika, artea...)
 - Euskaraz edo elebidunak izatea (euskara hizkuntzetako bat izanda).
 - Edozein hizkuntzatan izan daiteke, euskal gaia lantzen bada.
- Literatura lanak (eleberria, ipuinak, poesia, komikia, saiakera...)
 - Euskaraz edo elebidunak izatea (euskara hizkuntzetako bat izanda).
 - Jatorrizko bertsioa euskarazkoa denean, beste hizkuntza batzuetara itzulita dauden lanak onartuko dira.
 - Edozein hizkuntzatan, trama nagusiki Euskal Herriarekin lotuta badago.

Bai zabalkunde lanetan bai literatura lanetan, 16 urtetik beherako haur eta gazteei zuzendutako liburu eta aldizkariak euskaraz baino ez dira onartuko.

6.2. MUSIKA.

- Gutxienez, kantuen heren bat euskarazkoak izatea.
- Instrumentalak diren musika-lanetan, euskal musikarien sorkuntza-lanak eta/edo interpretazioak onartuko dira.
- 12 urtetik beherako haurrei zuzendutako musika lanak euskaraz baino ez dira onartuko.

6.3. MULTIMEDIA.

- Euskarazkoak edo elebidunak izatea (euskara hizkuntzetako bat izanda).
- Ahozko edo idatzizko testurik ez duten lanen kasuan, euskal sortzaileen lanak onartuko dira.
- 12 urtetik beherako haurrei zuzendutako multimedia lanak euskaraz baino ez dira onartuko.

6.4. BESTEAK.

Gerediaga Elkarteak euskararen erabilera sustatzeko helburuarekin honako material hauek ere onartuko ditu:

- *Papertegia*. Agendak, egutegiak, postalak eta pegatinak.
 - Euskaraz edo elebidunak badira (euskara hizkuntzetako bat izanda).
 - Testurik ez daukaten lanen kasuan, Euskal Herriko ikonografia edo argazkiak badituzte.



- *Mahai-jokoak eta joko didaktikoak.*
- *Euskaraz edo elebidunak badira (euskara hizkuntzetako bat izanda).*
- *Panpinak. Euskal kulturako pertsonaien errepresentazioa direnean.*
- *Produktu-sortak. Elementu nagusi modura euskarazko liburu, disko edo multimedia duenean.*
- *Musikari lotutako erakusmahaietan merchandisinga-a saldu ahal izango da (gainerako erakusmahaietan ez). Sortzaile bakoitzeko produktu eta modelo bakarra saldu ahal izango da. Produktuak hitzik badauka, euskara hutsean izan behar da. Produktu horiek erakusmahai barruan kokatuko dira, ezin izango da erakusmahaiaren kanpoaldean ezer jarri.*
- *Atal honetan jasotako materialak, 12 urtetik beherako haurrei zuzendutakoak badira, euskaraz baino ez dira onartuko.*

Halaber, **Gerediaga Elkartea Azokan aurkeztutako produktuen egokitasunari buruz ebatzi ahal izango du edozein unetan.**

7. ARTIKULUA - ESKARIEN EBAZPENAK

Azokan parte hartzeko eskariak aurkezteko epea amaitu ondoren, Gerediaga Elkartea eskariei buruzko ebazpenak hartuko ditu, eta banan-banan jakinaraziko dizkie eskatzaileei, onartuak izan baldin badira, bakoitzari dagokion erakusmahai kopurua eta horiek kokapena.

Onarpenaren jakinarazpenak, merkataritza kontratazio egoera irmoa eragingo du.

Onartuak izan ez direnen edo aurkeztutako ekoizpenaren parte bat onartu ez zaien kasuetan, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik hasita hiru egun balioduneko epea egongo da ebazpen horren aurkako helegitea aurkeztu ahal izateko Gerediaga Elkarteari. Helegitea idatziz aurkeztu beharko da, horren oinarri diren arrazoiak adieraziz eta bidezkoak izan daitezkeen frogak aurkeztuz. Aipatutako epearen barruan helegiterik aurkezten ez bada, partaideak Gerediaga Elkartea hartutako erabakia onartzen duela ulertuko da.

Helegitea aurkezteko epea amaitu eta ebazpenaren ostean, Gerediaga Elkartea kontratatutako eta onartutako zerbitzuei dagokien faktura sortuko du. Eskaria onartzen ez bada edo mugatuta onartzen bada, aurre-ordainketa gisa onartutako kopurua itzuli egingo da, inolako interes tasarik, konpentsaziorik edo kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik gabe.

Faktura sortu eta gero, onartutakoak Azokan parte hartzeari uko egiten badiu, antolakuntzak ordaindutako kanonaren %100 beretzat gordetzeko eskubidea izango du, Azokan ez aurkezteagatik kalte-ordain gisa.

PARTE-HARTZAILEEN ESKUBIDEAK

8. ARTIKULUA - ESKUBIDEAK



Erakusmahaien esleipenak lortu dituzten partaideek edo auto-ekoizleen espazioko partaideek ondoren adierazten diren eskubideak dituzte:

8.1. PRODUKTUEN SALMENTA.

Antolakuntzak onartzen dituen eta 6. artikuluan ezarritako eskakizunetara egokitzen diren produktuak saldu ahal izango dituzte, euren espazioetan edo euren ordezkarienetan.

8.2. SUSTAPENA.

Azoka gunearen barruan, Azokako partaideek sustapen ekintzak egin ahal izango dituzte. Horretarako, antolakuntzak zenbait bide jarriko ditu partaideen esku:

- ✓ *Online katalogoa. Urteko ekoizpenak webgunean kontsultatzeko aukera izango da.*
- ✓ *Partaideek online egokituko den katalogoan ikus-entzunezko bat txertatzeko aukera izango da. (horretarako ezarritako epe eta moduan)*
- ✓ *Musika azoka gunean. Azokako egunetako play-list berezira kantu berriak proposatu daitezke (horretarako ezarritako epe eta moduan). Euskara hutsezkoa kantuak edo instrumentalak bakarrik onartuko dira. *Kantu horiek QR kode bidez bisitariarentzat mugikorretan entzungai jartzeko aukera izango da.**
- ✓ *Sortzaileek sinadurak eman ahalko dituzte erakusmahaietan eta antolakuntzak horien berri emango du, horretarako ezarritako epe eta moduan jakinarazten bada.*
- ✓ *Partaideek Azokara dakartzaten nobedadeak aurkezteko aukera izango dute gune ezberdinetan: Talaia, Irudienea, Saguanbada, Ahotsenea literatura eta Ahotsenea musika, horretarako ezarritako epe eta moduetan eskaria eginez gero. Aurkezpenetarako beren-beregi sortutako araudia bete beharko da (ikus I. eranskina).*
- ✓ *Euskarazko ekoizpenari ikusgarritasuna emateko helburuarekin, euskara hutsezko lanen erakustoki bat jarriko du Azokak. Liburuak erakustoki horretan egoteko, eskatutako epe eta moduan entregatu beharko zaizkio Gerediaga Elkarteari.*

8.3. ZERBITZU OROKORRAK.

Azokan parte hartzeak zerbitzu hauez gozatzeko eskubidea dakar:

- *Aparkalekua. Gutxienez aparkaleku plaza bat izango dute partaideek eskari bakoitzeko (ez erakusmahai bakoitzeko) Azoka egunetan. *Salbuespena autoekoizleak eta Durangaldeko argitalpenen erakusmahaietan parte hartzen dutenak dira. Beste irizpide batzuk hartuko dira kontuan.*
- *Zaintza zerbitzua. Azoka hasi aurreko egunetik, amaitu ondorengo egunera arte luzatuko da, arratsaldeko 20:00etatik goizeko 10:00ak arte.*
- *Akreditazioa: Antolatzaileek partaide bakoitzari erakusmahai dagozkion akreditazioak eskura utziko dizkio. Momentu oro akreditazioa ikusgai eraman beharko da.*
- *Pasiloetako garbiketa (ez erakusmahai barrukoa), WIFI-a, argindarra...*
- *Partaideek, komunikabideetako profesionalek edota garraiolariak goizeko 9:00etan Azoka gunera sartzeko aukera izango dute.*



Autoekoizle edo Durangaldeko argitalpenak modura parte hartuko dutenen zerbitzuen eskubideak partaide bakoitzarekin adostuko dira.

PARTAIDEEN BETEBEHARRAK ETA ERANTZUKIZUNAK

9. ARTIKULUA – PARTAIDEEN BETEBEHARRAK

Erakusmahaien esleipenak lortu dituzten partaideek edo partekatutako espazioetan izango direnek ondoren adierazten diren betebeharrak dituzte:

- 2024.urtean ekoiztutako argitalpenak salgai jartzea.
- Durangoko Azokan salgai izango diren 2024ko produktuen gaineko informazioa intraneta erabiliz bete beharko dute partaideek, antolakuntzak ezarritako epeetan. Era berean, erakusmahaiaren salgai ipiniko diren gainerako produktuak ere adierazi beharko dira, Azokak emango duen Excel formatuan.
- Partaideek Azoka egunetarako arduradun bat izendatu beharko dute, eta intranetean kontakturako datuak (telefono zenbakia eta e-posta) eguneratuta daudela ziurtatu beharko dute. Arduradunak eraginkorra izan behar du Azokan izan daitezkeen intzidentzia edo ezustekoak konpontzeko, bi komunikazio kanal erabilia: telefonoa eta e-posta.
- Urteko ekoizpenaren bi aleak Gerediaga Elkarteari ematea (musikarekin lotutako lanen kasuan ale bat). Aleak Gerediaga Elkarteari funts dokumentalean sartuko dira, edo bidezkoak irizitako helburu ez komertzialetara bideratuko dira. Emateko epea amaitu ondoren informazio puntuan aurkeztu beharko dira, Azoka hasi baino lehen.
- Erakusmahaiak, antolakuntzak ezarritako egunetan eta orduetan muntatzea eta desmuntatzea.
- Oinarrizko erakusmahaiaren neurriak errespetatu beharko dira, errotulazioa eta erakusmahaiaren egitura. Ezin da ezer iltzatu erakusmahaiaren hormetan. Dekorazioak ezin ditu erakusmahaiaren neurriak gainditu. Antolatzaileak beren-beregi baimendutako kasuren baten dekorazioak erakusmahaiaren neurriak gainditzen baditu, horren eraginez sortutako kalteen erantzulea erakusmahai horretako partaidea izango da.
- Salmenta-promoziorako egin daitezkeen beste edozein ekintza, gutxienez 48 ordu lehenago jakinarazi beharko zaio antolatzaileari. Partaidearen ardura da bisitariaren eta gainontzeko partaideen jardunean ahalik eta eragozpen gutxien sortu dezan ziurtatzea.
- Ikus-entzunezko produktuen soinuari dagokionez aurikularrak erabiltzea
- Azoka egunetan zamalanak jakinarazitako ordutegiaren barruan egitea.
- Norbere erakusmahai eta alboetako espazioa garbi eta ordenatuta izatea.
- Produktu guztietan %10eko beherapena egitea aurretik akreditatzen diren Gerediaga Elkarteko bazkideei.
- Azokaren araudia betetzea eta Gerediaga Elkartean eskatzen dion informazioa ematea, Azoka aurretik zein Azokak irauten duen bitartean.
- Durangoko Azokako Indarkeria Matxistaren Aurkako Protokoloa ezagutzea. Azokan parte hartzeak esan nahi du protokoloaren baitan antolakuntzak hartutako erabakiak beteko direla.

10. ARTIKULUA - ERANTZUKIZUNAK.



Ondoren aipatzen diren hauek partaideen ardura (erakusmahaia esleitu zaienena zein espazio komunena bat esleitu zaienena) izango dira:

- Durangoko Azokan edo bertako antolatzaileengan edo beste pertsona batzuegan eragin ditzaketen kalteena.
- Erakusmahaietako materialaren zaintza, 8. artikuluan adierazten den zaintza ordutegitik kanpo.
- Partaideek Durangoko Azoka barruan egiten duten jardueragatik aplikagarri zaizkien lege eta araudiak betetzeko erantzukizuna dute. Partaideek aurre egin beharko diete aipatutako arauak ez betetzeagatik ezarri dakizkieteken isun edo zigorrei.

DEBEKUAK, ARAU-HAUSTEAK ETA ZIGORRAK

11.ARTIKULUA - DEBEKUAK

Azokako partaideek ezin izango dute:

- **Erakusmahaia edo parte bat eskatzailea ez den subjektu bati utzi**, ordezkaritza kasuetan izan ezik (4.1.b. artikuluan xedatutakoaren arabera) batzutan konpartitu egiten dute eta baten izenean egiten da eskaria. Artikulu honen arabera ezin da egin.
- **Erakusmahaiaren eskaria egin duen subjektuak argitaratu edo banatzen ez dituen produktuak erakutsi edo saldu.**
- **Debekatuta daude**, araudi honen **6. artikuluan jasotako irizpideak betetzen ez dituzten salgarriak.**
- **Erakusmahaiaren neurrietatik kanpo osagarriak jartzea** edota erakusmahaiaren moldaketak egitea, antolatzaileek beren-beregi baimena eman ezik.
- **Erakusmahaiaren dekorazioak eta altzariek ezin dute bisitariaren joan-etorria oztopatu**, ezta beste partaideen erakusmahaiaren ikusgarritasuna ere. Debekatuta dago Azokaren planoan jasota dauden zirkulazio pasalekuak blokeatzea.
- **Erakusmahaia itxita edo material barik izan** Azokak atek zabalik dituen bitartean. Gainera, momentu oro, arduradun bat izango da bertan.
- **Aurkezpenetarako** araudia ez betetzea.
- Indarkeria matxisten kontrako protokoloa ez betetzea eta honen baitan hartzen diren erabakien kontra joatea.

Gerediaga Elkartek araudia betetzen dela ikuskatzeko eskubidea izango du.

12.ARTIKULUA - ARAU-HAUSTEAK

- Hutsegite arinak izango dira araudi honetako 9. eta 10. artikuluetan adierazten diren betebeharrak ez betetzea.
- Hutsegite larriak izango dira araudi honetako 11. artikuluan adierazita dauden debekuak ez betetzea eta era berean, hiru hutsegite arin batzea.
- Hutsegite oso larria izango da bi hutsegite larri pilotzea edota hutsegite larri bat errepikatzea. Halaber, 2024ko azokako edizioan egingo den azterketa soziologikorako galdetegia ez betetzea eta Indarkeria Matxistaren Aurkako Protokoloaren arabera hartutako erabakiak ez betetzea hutsegite oso larritzat joko dira.



13.ARTIKULUA - ZIGORRAK

- Hutsegite arinak berbaz adieraziko zaizkie partehartzaileei, bete ditzaten.
- Hutsegite larriak idatziz jakinaraziko zaizkie partaideei eta momentuan betetzea eskatuko zaie.
- Hutsegite oso larria gertatuz gero, momentuan hutsegitea zuzentzeaz gain, partaideak hurrengo parte hartzen duen edizioan % 100eko igoera izango du standaren prezioan, edo ezin izango du aurkezpenik egin azokako espazioetan.

EZINBESTEZ EGINDAKO ALDAKETAK EDO EZEZTATZEAK

Ezinbesteko kasuetan, Durangoko Azokaren datak aldatu egin ahal izango dira edo Azoka bera bertan behera utzi. Kasu horretan, Gerediaga Elkartea ez du inolako erantzukizunik izango, eta bere betebeharrak bakarrik erakusmahaien alokairu gisa jasotako diru-kopuruak itzultzea izango da. Dena den, espazioen alokairuaren prezioaren %25era arte beretzat gorde ahal izango du, antolakuntza gastuengatik konpentsazio gisa.

Behin Durangoko Azoka inauguratu ondoren bertan behera utzi behar baldin bada, ez da espazioen alokairuaren zenbatekorik itzuliko.

JURISDIKZIOA

Gerediaga Elkartea, Durangoko Azokako antolatzaile nagusi modura, araudi honetan jasota ez dagoen guztiari buruz erabakitze eskumena izango du.

Araudi honen baliozkotasunarekin, interpretazioarekin edo burutzapenarekin erlazionatuta planteatu daitekeen edozein zalantza edo gatazka ebazteko, Durangoko epaitegiak eta epaimahaiak izango dira eskudunak, aplikagarri izan daitekeen beste edozein foru baztertuz.



I eranskina

AZOKAKO GUNEETAKO EGITARAUUA OSATZEKO IRIZPIDEAK

Ondoren azaltzen diren irizpideak betetzen ez dituzten proposamenak edota epez kanpo aurkezten direnak, ez dira onartuko.

Bere lana egitarauan aurkeztuko duten egileek ezingo dute Azokak berak baino lehenago iragarri.

BETE BEHARREKO IRIZPIDEAK

1 LAN BERRIA IZATEA

Azokaren edizioaren urte berean argitaratutako lanak hartuko dira berritzat, edozein delarik euskarria, eta horiek izango dute lehentasuna guneetako aurkezpenetan. Halaber, berrargitalpenak ez dira lan berritzat hartuko, berrargitalpenean ez bada jatorrizko lana aldatu.

Egitaraua betetzeko adina eskari ez bada jasotzen, berrargitalpenek eta aurreko urteetako argitalpenekin osatu ahal izango da egitaraua, ordena horretan.

2 AZOKAN SALGAI EDO ERAKUSGAI EGOTEA

Talaian, Ahotsenean eta Saguganbaran aurkeztu nahi diren lanak Azokan salgai edo erakusgai egon behar dira, formatua edo euskarria edozein delarik.

3 EUSKARAZ SORTUTAKO LANA IZATEA ETA AURKEZPENA EUSKARAZ IZATEA

Azokak euskarazko sorkuntzari ikusgarritasuna eman nahi dio. Horretarako, guneetan soilik euskaraz sortutako lanak eta euskaraz aurkeztuko dira.

Salbuespen moduan, Azokaren edizioaren berezitasunak hala eskatzen badu, erdaraz sortutako eta aurkeztutako lanek puntualki lekua izan dezakete guneren bateko egitarauan, antolakuntzak beren-beregi hala erabaki badu.

Guneetako zehaztapenak:

- **Talaia:** Lehentasuna emango zaie euskaraz sortutako lanei. Hala ere, orduzuztiak betetzeko adina eskari ez badago, elebidun eta erdaraz sortutako lanak aurkezteko aukera emango da, ordena horretan, baldin eta aurkezpena euskaraz egiten bada.
- **Irudienea:** Euskaraz sortutako lanak eta euskaraz aurkeztuko dira. Kasuan kasu eta lanaren arabera beste hizkuntzarik badago, nahitaez euskaraz azpigitulaturik joan beharko da (hau eskaria egin duenak bermatu beharko du). Dena dela, euskaraz sortutako lanei emango zaie lehentasuna
- **Kabia:** Lan guztiak euskaraz aurkeztuko dira. Aurkezten diren plataforma, aplikazio, sorkuntza, gailu eta bestelako garapen teknologikoen kulturarekin lotura izan behar dute. Bestalde, aurkeztutakoaren isla digitalak, izatekotan, euskaraz erabiltzeko aukera eskaini behar dio erabiltzaileari.

BALORATUKO DIREN IRIZPIDEAK



4 ANIZTASUNA

Aniztasunaz ari garenean argitaletxez, sormen-lanen estiloaz, lantzen diren gaiez, egileen adinaz, jatorriaz, ibilbideaz eta sexu-generoaz, eta Azokako hartzaile eta xede taldeez ari gara. Hala, ondoren zehazten diren puntu hauek aintzat hartuko dira egitaraua osatzeko orduan:

4.1. Sormen lanei dagokienez estiloen ugaritasuna.

4.2. Oreka sei gai hauetan:

- Oreka sormen-lanetan lantzen diren **gaietan**, nahiz eta bereziki baloratuko diren gaurkotasunarekin lotura duten gaiak edota eduki berritzailea duten lanak.
- Oreka **egileen adinean**.
- Oreka **egileen ibilbidean**. Ibilbide luzeko sortzaileei eta sortzaile berriei egingo zaie lekua.
- Oreka **egileen jatorrian**. Azokaren erreferentziazko lurraldea Euskal Herria izanik, zazpi lurraldeetako eta euskal diasporako sortzaileei eta lanei egingo zaie lekua era orekatuan.
- Oreka **argitaletxeetan**. Argitaletxe (diskoetxe, ekoiztetxe, konpainia) arteko oreka lehenetsiko dugu, baita argitaletxe egonkortuen eta auto-ekoizleen artekoa ere.
- Oreka **egileen genero aniztasunean**. Egitaraua eta guneko proposamena genero-aniztasunean oinarriturik egon behar da eta emakume, gizon eta ez-bitarren arteko oreka lehenetsiko dugu.

Ikuspegi horretatik, zenbakietatik haratago hausnarketa txertatu eta zentzu kualitatiboan genero aniztasunaren ikuspegia uneoro txertatuta egon dadin programatuko da.

4.3. Azokako hartzaile edo xede talde diren ikusleei egokitzea.

Guneetako zehaztapenak:

- **Irudienea**: Aniztasuna ikus-entzunezkoaren generoan (fikziozko lanak, animaziozkoak, dokumentalak, film laburrak, ertainak zein luzeak...) eta proiektatzen den edukian (ageri diren pertsonen eta gaiei erreparatuko zaie).

Zinema aretoetatik haratago sortzen ari den ikus-entzunezkoen munduak isla/tarte bat izatea programazioan (web serieak, podcastak, bideoklipak...).

Zirkuitu komertzialetatik kanpo gelditzen diren/ikus daitezkeen izenburuak aurkeztea.